

2013ko urtarrilla



BOTERE PUBLIKOEN JARDUERA, EAEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO V. PLANA GARATZEKO ETA APLIKATZEKO.

2010-2011

## AURKIBIDEA

0.	AURKEZPENA .....	5
1.	IKUSPEGI METODOLOGIKOA. EMAITZAK INTERPRETATZEKO GOGOETA BATZUK .....	6
2.	EBALUAZIOAREN EMAITZAK.....	8
2.1.	BERDINTASUNAREN ALDE GOBERNANTZA HOBETZEKO NEURRIEN EMAITZAK.....	8
2.1.1.	UDAL ESPARRUKO ADMINISTRAZIOETAN ETA NAGUSIKI KAPITAL PUBLIKOA DUTEN ENPRESETAN EGINDAKO BERDINTASUN PLANEN KOPURUA HANDITZEA (G1) .....	8
2.1.2.	BERDINTASUNERAKO UNITATE ADMINISTRATIBOEN KOPURUA HANDITZEA (G2).....	11
2.1.3.	KOORDINAZIORAKO EGITUREN KOPURUAREN HANDITZEA (G3) .....	16
2.1.4.	GENERO IKUSPEGIA DAUKATEN ESTADISTIKEN ETA AZTERLANEN EHUNEKOA HANDITZEA (G4).....	17
2.1.5.	GENERO IKUSPEGIA TXERTATUA DAUKATEN ADMINISTRAZIOEN FORMAKUNTZA-JARDUEREN ETA BERDINTASUN GAIEN FORMAKUNTZA-JARDUERA ZEHATZEN KOPURUAK HANDITZEA, OSATUTAKO TALDEAK DIBERTSIFIKATUZ (G5) .....	18
2.1.6.	ENPLEGU PUBLIKORA SARTZEKO EDO BERTAN SUSTATZEKO BERDINTASUN PRINTZIOIARI BURUZKO EDUKIAK DITUZTEN EDOTA BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA BEREZIA ESKATZEN DUTEN HAUTAKETA PROZESUEN EHUNEKOA HANDITZEA (G6) .....	21
2.1.7.	GENEROAREN ARABERAKO INPAKTUAREN AURREKO EBALUAZIOA GEHITZEN DUTEN ARAUEN ETA BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN NEURRIEN KOPURUAREN HANDITZEA (G8).....	23
2.1.8.	GENERO IKUSPEGIA SARTUTA DAUKATEN AURREKONTU ARAUEN ETA PROGRAMEN EHUNEKOA HANDITZEA, BAITA BERDINTASUNERAKO AURREKONTU BEREZITUAK DITUZTEN ADMINISTRAZIOEN KOPURUA ERE (G9).....	24
2.1.9.	BEREN DISEINU, EBALUAZIO ETA KUDEAKETA PROZESUETAN GENERO IKUSPEGIA KONTUAN HARTZEN DUTEN SEKTOREKAKO ETA ZEHARKAKO PLANEN EHUNEKOA HANDITZEA, BEREZIKI BEHAR BEREZIAK DITUZTEN TALDEAK ETA ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOA JASATEKO ARRISKUA DUTENAK AINTZAT HARTUTA (G10).....	26
2.1.10.	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK TXERTATUTA DITUZTEN KONTRATUEN, DIRU-LAGUNTZEN ETA HITZARMENEN EHUNEKOA HANDITZEA (G11) .....	28
2.1.11.	EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTAIDETZA OREKATUA DUTEN EPAIMAHAIEN ETA AUZITEGIEN EHUNEKOA HANDITZEA (G12) .....	30
2.1.12.	BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUME ETA GIZONEN OREKATUTAKO ORDEZKARITZARAKO ORGANOEEN ETA AHOLKU ETA PARTE -HARTZE PROZESUEN AREAGOTZEA (G13) .....	32
2.2.	PARTE-HARTZE ESPARRUKO EMAITZAK .....	34
2.2.1.	PARTE-HARTZEEN HELBURU POLITIKOAK.....	36
2.2.2.	EREMUAK (BIZTANLERIA).....	38
2.2.3.	TEMATIKA.....	40
2.2.4.	ESKU-HARTZE MOTA.....	42
2.2.5.	FORMAKUNTZA .....	44
2.2.6.	SENTSIBILIZAZIOA .....	47
2.2.7.	INFORMAZIOA, EZAGUTZA ETA AZTERKETA.....	49
2.2.8.	ZERBITZU ETA HORNIKUNTZEN SORKETA ETA KUDEAKETA .....	51
2.2.9.	BERDINTASUN-JARDUERETAN HIRITARREKIN ERLAZIONATUTAKO BESTE ALDAGAI BATZUEN ERAGINA .....	52
2.2.10.	ESKU-HARTZEEN KOSTUA .....	56
3.	ONDORIO GISA .....	58



## Taulen aurkibidea

1.Taula	Informazio-bilketako pertsona parte-hartzaile kopurua. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana.....	7
2.Taula	Erakunde parte-hartzaileen kopurua. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana.....	7
3.Taula	Indarrean dagoen Berdintasun Plana.....	8
4.Taula	Berdintasun planen lantzearen karakterizazioa, erakunde motaren arabera.....	10
5.Taula	Barneko berdintasuna.....	11
6.Taula	Berdintasunerako Unitate Administratiboaren existentzia.....	11
7.Taula	Berdintasunerako Unitate Administratiboetan lanean dauden pertsonak (eta informazioa eskaintzen duten erakunde kopurua).....	13
8.Taula	Berdintasunaren eremuan lan egiten dutenek egindako jardurera batzuk.....	15
9.Taula	Koordinazioko egituren erakunde kopurua eta horien karakterizazioa, erakunde-mota eta urtearen arabera.....	16
10.Taula	Berdintasunaren ikuspegitik egindako estatistika eta azterketak.....	18
11.Taula	Formakuntza orokorra 2011 (IVAP.....)	19
12.Taula	Berdintasunean formakuntza espezifikoa (IVAP).....	19
13.Taula	Formakuntza orokorra 2011 (IVAP ez).....	20
14.Taula	Berdintasunean formakuntza espezifikoa (IVAP Ez).....	20
15.Taula	Hautapen-prozesuak.....	22
16.Taula	Inpaktuaren aurreko ebaluazio arauak.....	23
17.Taula	Berdintasunerako aurrekontuak, urtearen eta erakunde-motaren arabera (eta kasu bakoitzean informatzen duten erakunde kopurua).....	25
18.Taula	Erakutsitako aurrekontuen xehatzea (eta kasu bakoitzean informazioa ematen duten erakunde kopurua).....	26
19.Taula	Genero ikuspegia daukaten sektore eta zeharkako planak.....	27
20.Taula	Berdintasun irizpideak euskal administrazioetako kontratazio, diru-laguntza eta hitzarmenetan.....	28
21.Taula	Epaimahaietan, auzitegietan, elkargoko organoetan eta parte-hartzaileak eta aholku emaileak diren organoen orekatutako ordezkariak.....	30
22.Taula	Hiritarren eta berdintasun parte-hartze organoak.....	33
23.Taula	Identifikatutako jardura motak erakundearen eta urtearen arabera.....	34
24.Taula	Aurreko urtearen jarraipena diren jardura kopurua eta ehunekoa, urtearen eta erakunde motaren arabera.....	35
25.Taula	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jardueren kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	36
26.Taula	Eremu zehatz batean inskribatzen diren jardueren kopurua, urtearen eta erakunde motaren arabera.....	38
27.Taula	Tematika zehatz batean garatzen diren jardura kopurua, urtearen eta erakunde motaren arabera.....	40
28.Taula	Esku-hartze zehatz bat bezala egiten diren ekintza kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	42
29.Taula	Hiritarren formakuntza-ekintzetan parte-hartzaileen kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	44
30.Taula	Helburu zehatzei zuzendutako formakuntza-ekintza kopurua, erakundearen arabera.....	46
31.Taula	Sentsibilizazio, hedapen eta komunikazio jardueretan parte-hartutakoen kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	47
32.Taula	Helburu zehatzetara zuzendutako sentsibilizazio-jardueren kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	48
33.Taula	Jardura zehatzetan ardaztutako informazio, ezagutza eta azterketa ekintzen kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	49
34.Taula	Zerbitzu eta hornikuntzen sorketa eta kudeaketa kopurua, jardueraren, urtearen eta erakundearen arabera.....	51
35.Taula	Gizon, emakume eta pertsona transgenero-transsexualeri espezifiki zuzendutako jardura kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	52
36.Taula	Talde espezifikoetan ardaztutako jardura kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	53
37.Taula	Berdintasunerako beste helburu batzuetara zuzendutako jardura kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	54
38.Taula	Talde zehatz batzuei egokitutako neurriak gehitzen dituzten jardueren kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	54
39.Taula	Informatutako jardueren kostua, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	56

## Grafikoen aurkibidea

1.Grafikoa	Administraziora zuzendutako jarduera guztien banaketa portzentuala instituzio/erakundeen artean (2011) .....	34
2.Grafikoa	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduera kopurua, urtearen arabera.....	37
3.Grafikoa	Eremu batean inskribatzen diren jarduera kopurua, urtearen arabera.....	39
4.Grafikoa	Tematika zehatz bat garatzen duten jarduera kopurua, urtearen arabera .....	41
5.Grafikoa	Esku-hartze zehatz bat bezala egiten diren ekintza kopurua, urtearen arabera.....	43
6.Grafikoa	Herritarren formakuntza-ekintzetan parte-hartzaile kopurua, urtearen arabera .....	45
7.Grafikoa	Helburu zehatzei zuzendutako formakuntza-ekintza kopurua.....	46
8.Grafikoa	Helburu zehatzetara zuzendutako sentsibilizazio-jardueren kopurua, urtearen arabera .....	48
9.Grafikoa	Informazioan, ezagutzan eta azterketan ardatzutako ekintza-zehatzen ehunekoen banaketa, urtearen arabera.....	50
10.Grafikoa	Zerbitzu eta hornikuntzen sorketa eta kudeaketa kopurua, urtearen arabera .....	51
11.Grafikoa	Informatutako jardueren guztizko kostua, erakundearen eta urtearen arabera (2010-2011).....	57
12.Grafikoa	Hezkuntzako partida nagusiak baztertuz jardueren kostuaren banaketa, urtearen eta erakunde-motaren arabera.....	57

## 0. AURKEZPENA

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak finkatzen du Eusko Botere Publikoek ariketa bakoitzean garatutako jarduerari buruzko ebaluazio-dokumentua egingo dela. Dokumentu hau V. Planaren ebaluazio eta jarraipenaren gailuan kokatzen da, eta eskakizun honi erantzuten dio Euskal Botere Publikoek 2010ean eta 2011n garatutako jardueren emaitza garrantzitsuenen jarraipenaren bitartez.

Ondoren aurkezten diren emaitzen estrukturak V. Planak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako definitutako jarraibideak betetzen ditu. Lehenengo atalean gobernantzari buruz hitz egiten da, hau da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean finkatutako oinarritzko baldintzak erakundeen funtzionamenduan eta antolaketan genero ikuspegitik nola integratzen diren erlazionatuz. Bigarren atalean Planean definitutako helburuak lortzeko garatutako esku-hartzeak jasotzen dira: emakumeen indartzea eta balio-aldaketak; giza-antolaketa erantzule baten garapena eta emakumeen kontrako bortizkeriaren aurkako borroka.

Txostenaren egituraketa honek ere, informazioa jasotzeko era desberdinei erantzuten die: gobernantzako galdetegi baten (instituzio/erakunde bakoitzak betetako galdetegia) eta jardueren galdetegi baten bidez (erakundeek urte bakoitzean garatutako esku-hartze bakoitzeko galdetegiak betetzen dituzte).

Txostenaren azkeneko atalean prozesu honetan lortutako emaitza nagusienetako batzuk nabarmentzen dituen sintesia eransten da, EAEko berdintasun politiken lorpen nagusien eta une zehatzen balioespenekin batera, euskal administrazioko maila ezberdinetan politika horiek garatzen dituztenen ikuspegitik eginak<sup>1</sup>.

---

1 Udal, foru aldundi eta Eusko Jaurlaritzako sailek 30 teknika ingurutan parte hartu dute 2012an Ebaluazio Esku-Hartzaileko 3 taldetan, zeinetan berdintasun politikarekin zerikusia daukaten hainbat kontu beren esperientziatik balioetsi dituzten.

## 1. IKUSPEGI METODOLOGIKOA. EMAITZAK INTERPRETATZEKO GOGOETA BATZUK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren jarraipenak aurreko ariketekin alderatuz hainbat aldaketa nabarmen ekarri ditu. Batzuk, Planean bertan egindako aldaketarekin zerikusia daukate: bereziki, jardueren deszentralizazioaren sakontzearekin eta neurri zehatzik gabeko helburu estrategikoen definizioarekin, esku-hartzeen informazio bilketa eraginkor irekiago bat definitzera daramatzatenak.

Beste aldaketa nabarmenena on line aplikatibo bat da, botere publikoek berdintasunaren alorrean egindako esku-hartzeak jasotzen dituenak. Laburbilduz, emakume eta gizonen berdintasun gaietan informazioa jaso eta analizatzeko era berri honen ezaugarri garrantzitsuenak ondoren nabarmentzen dira:

### Partaidetza handiago bat

- V planeko garapenean partaide diren agente ezberdinen jardueren on-line bilketak, parte-hartzen duten erakundeen eta instituzioetan elkarlanean aritu diren pertsonen kopuruak handitzea ahalbidetu du. Horrela, 2010ean informazioa eman duten 191 pertsonen izena eman dute 120 erakundeetan; eta 207 pertsonen 126 erakundeetan 2011n.

### Erakunde berriemailetako eta bertako pertsonen aniztasunaren gehikuntza

- Aniztasunaren gorakada, bereziki, prozesura sartzen doazen organismo autonomo eta kapital publikoko enpresetatik dator. Pertsonen kopuruari dagokionez, 2010ean 191 ziren, 1,59 batez beste erakundeko; 2011n arinki 1,64ra igo dena (207 126 erakundeetatik).

### Abiarazteko zailtasun eraginkor batzuk

- 2010eko jarduerari eta informazio ezberdinak sartzeari dagokienez, edukiak zehazteko halako egokitze-prozesu bat eskatu du.

Emaitzen interpretazioa errazteko ere, hainbat gauza kontutan hartzea komeni da:

- Bi analisi-urteetan parte hartu duten 116 udal desberdinen artean 57k ondoko ondoko bi urteetan egin dute, baina 29k 2010ean informatu dute eta 30ek 2011n bakarrik (kontuan izan behar da 2011n hainbat udal eta foru-eremu eragiten duten hauteskundeak egin direla).
- 2011n ere hainbat organismo autonomo eta erakundeetan gehitze handiago bat erregistratzen da, eta beraz, azterketaren bi urteetako emaitzen aldaketa, kanbio honetan edo berriemaileen handiagotzean sartu behar da.

- Kasu batzuetan, erakundeak beste sail edo departamentu batzuetako informazioa emateko orduan arazoak dauzkate, eta batzutan aurkeztutako informazioa ez da osoa, antolaketa konplexua daukaten erakundeetan batez ere.

Ondoko taulek instituzioen esku-hartzearen eta V Planaren garapenaren arduradunak diren erakundeen oinarritzko kopuruak jasotzen dituzte.

1. Taula **Informazio-bilketako pertsona parte-hartzaile kopurua. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana**

	2010 Urtea	2011 Urtea
<b>Aplikatioan behin betiko altak</b>	191	16 gehitze berri ones

2. Taula **Erakunde parte-hartzaileen kopurua. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana**

	Informazioa eskaintzen dute	
	2010 Urtea	2011 Urtea
<b>Eusko Jaurlaritzako Sailak</b>	11	11
<b>Foru Aldundiak</b>	3	3
<b>Udalak eta Erkidegoak</b>	91	92
<b>Beste Institutuzio eta Erakunde batzuk Organismo Autonomoak, Enpresa publikoak eta Beste institutuzio eta erakundeak</b>	15	20
<b>GUZTIRA</b>	<b>120</b>	<b>126</b>

## 2. EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Gobernantzaren emaitzak V Planak alor honetan finkatzen dituen helburuen inguruan taldekatu dira (haiek Planean bertan bezala identifikatuz). Jardueren kasuan ostera, informazioa galdeketa erabilitako edukien arabera egituratu da (helburuak, esku-hartze mota...).

Beste urte batzuen informazioekiko emaitzen alderagarritasuna bilatu da, aldagai desberdinen bilakaera ezartzeko asmoz, datu berri eta libreenak erabiliz.

### 2.1. BERDINTASUNAREN ALDE GOBERNANTZA HOBETZEKO NEURRIEN EMAITZAK

Berdintasunerako V Planak neurri legegileak sartzten eta garatzen ditu, *euskal administrazio publikoetan generoaren esku-hartzea integratzen duen prozesua bultzatzeko eta jasotzeko asmoz.*

Ondoren, neurri horietako bakoitzean erregistratutako emaitzak azaltzen dira: Planaren beraren adierazleetara hurbiltzen saiatuz, 2010eko eta 2011ko esku-hartzeen jarraipen prozesuan lortutako informazioari arreta ipiniz, eta Plana oinarritzen den diagnostikoan edo beste iturri batzuetan jasotako aurreko informazioarekin alderatuz.

#### 2.1.1. Udal esparruko administrazioetan eta nagusiki kapital publikoa duten enpresetan egindako berdintasun planen kopurua handitzea (G1)

4/2005 Legeak emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko beharra arautzen du: EJ-k legealdi bakoitzeko sei hilabete lehenetan onartuko ditu, euskal botere publikoen ariketa bideratuko duten esku-hartze eta arauak finkatzen dituen plan orokor bat ezartzen du<sup>2</sup>, Foru Aldundiak eta udaletxeek esku-hartze eta arau hauen arabera berdintasun planak eta programak onartu behar dituztela finkatzen du, eta nahiezkotasun hau batez ere ondasun publikoaren parte izandako enpresetara luzatzen da.

#### 3. Taula Indarrean dagoen Berdintasun Plana

Urteak	Eusko Jaurlaritza (Sailak)	Foru Aldundiak	Udalak eta Erkidegoak	OOAA
2008	IV Plana	3	47 udal eta 2 erkidego	--
2010	V Plana (Sail: 11 Sail)	3	63 udal (+15 lantzen) 4 erkidego	3 (+ 3 lantzen)
2011	V Plana: 11 Sail	3	51 udal (+ 23 lantzen) 1 + erkidego	3 (+ 4 lantzen)

<sup>2</sup> Plan orokorraren esku-hartze eta arauen garapenean, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak bere planak edo jarduera-programak landuko dituela esaten du ere bai.



Eusko Jaurlaritzen Sail guztiek, logikoki, berdintasun plan bat daukate, eta Foru Aldundiek (eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak) ere bai. Udaletan, Erkidegoetan eta Organismo Autonomoetan azterketa-urteetan erregistratutako egoera aldiz, aldakorragoa da.

Hots, 2008ko informazioa oinarritzat hartuz, udal erakunde eta udalaren gainekoak diren berdintasun planen kopuruaren gorakada ikusten da (2008an Organismo Autonomoei buruzko informazioa ez da agertzen), 49tik 68ra igotzen dena (15 gehiagorekin lanean). Hala ere, honen eboluzioa balioestea zaila da 2011n erregistratutako bilakaerarekiko. Indarrean dagoen planaren gainean eztabaidatzean, erantzun positiboen kopuruaren beherakada ikusten da, baina baita ere Plan baten lantze-prozesuan daudenen gorakada. Aldaketa honen oinarria, 2011n udal lurralde eta historikoen mailan ematen den legealdi aldaketan egon daiteke.

Nolanahi ere, bere udalean edo eskualdean indarrean dagoen berdintasun planik duen eta informatu duen euskal populazioaren ehunekoa<sup>3</sup> %65,6 da eta %67,2 2011n.

Euskal erakundeen tresna hauen egonkortasuna eta sendotasuna ezagutzeko, aurretik garatutako planen kopurua kontsultatu da. Itxaroten zen moduan, politika hauek duela denbora gehiagotik Eusko Jaurlaritzan finkatuta daude (gaurkoaren aurretik 4 plan identifikatzen dira). Udaletan ordea, batez besteko kopurua txikitzen da, bat eta hiru artean kokatuz. Dimentsioak bere garrantzia duen arren, tamaina txikiko eta bereziki aktiboak diren udal batzuk ikusten dira. Gainera, Aldundiek aurretik hainbat plan ere izan dituzte, eta Organismo Autonomoek aurreko 4ren eta 2ren planen artean.

Plan hauen lanketaren inguruan, hurrengo ezaugarriak nabarmentzea posible da:

- Planen diseinuaren aurrekoko diagnostikoen erabilera oso hedatuta dago.
- Bere lantzean ohikoa da ere erakunde egokien area desberdinetako pertsonal tekniko eta politikoen parte-hartzea.
- Planen diseinuetan hiritarren parte-hartzea oso ohikoa da udal eta erkidegoetan, baino oso mugatua da edo ez da existitzen beste maila instituzional batzuetan.
- Kasu gehienetan planen ebaluazioa aurrez ikusita badago ere, bere garapenerako kasu guztietan foru aldundiek bakarrik aurrez ikusten dute, eta udalen heren batek.

---

3 Handiagoak diren udal batzuk beren jardueraren berri eman ez dutenez, udal berdintasun planen bat daukaten herritarren kopurua gutxienez %78ra hurbiltzen dela balioetsi daiteke.

#### 4. Taula Berdintasun planen lantzearen karakterizazioa, erakunde motaren arabera

Urteak	Eusko Jaurlaritzak	Foru Aldundiak	Udalak eta Erkidegoak	OOAA
2010 eta 2011	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gehiengoaren parte-hartzea maila politiko eta teknikoan</li> <li>- Aurretiko diagnostikoaren burutzea</li> <li>- Aurrez ikusitako programaren ebaluazioa (aurrekontu gabe)</li> <li>- Sail guztiak (2 kasu izan ezik) inplementazioan sartzea, beste Instituzio eta Organismo Autonomoak ere bai</li> <li>- Hiritarren parte-hartzerako mekanismo gabe</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurretiko diagnostikoarekin (denak)</li> <li>- Bakarrik 1 herritarren parte hartzearekin</li> <li>- Maila politiko eta tekniko sail ezberdinen parte-hartzea (3ak)</li> <li>- Aurretiko ebaluazioa (eta esleitutako aurrekontua)</li> <li>- Beste erakunde batzuen parte-hartzearekin</li> <li>- Berdintasunarekin harremana daukaten beste plan edo programa batzuekin</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- %90 (2010) eta %100 (2011) inguru, aurretiko diagnostikoarekin</li> <li>- %90 baino gehiago, sail ezberdinetako maila tekniko eta politikoan parte-hartzearekin</li> <li>- Hiritarren parte-hartze mekanismoekin (bi urteetan %70 eta %80 artean)</li> <li>- Gehiengo baten alde aurretiko ebaluazioarekin (artean, heren batek aurrekontuarekin)</li> <li>- Inplementazioaren oinarrizko sailak: Kultura, Euskara eta Kirolak, baita ere Hezkuntza, Giza-barneratzea, etab.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Batez ere izaera teknikoko parte-hartzea (Emakunde izan ezik, politiko eta teknikoak)</li> <li>- Aurretiko ebaluazioa</li> </ul>

Barneko Berdintasun Planei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak ez dauka barneko berdintasun planik bere langile funtzionario eta kontratatuentzat. Dena den, 2007tik negoziazio kolektiboaren bidez lan-antolaketan, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren kriterio ezberdinak ia bere osotasunean gehitu dira. Gipuzkoako Batzar Nagusiek, bere aldetik, indarrean dagoen barneko lan-plan bat daukatela baieztatzen dute.

Ikusten denez gero, plan hauek ez dira oso ohikoak erakundearen artean, eta ebaluazioan identifikatutako guztiek 2011n 9 gehitzen dituzte, garapen-fasean aurkitzen diren 6ez gain.

Jarraian, irakurketa errazteko taulan zenbatutako jokaera-irizpideak, martxoak 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoak, aipatzen dira:

- Edozein diskriminazio-motaren bizirik irautea dakarten oztopoak baztertzea; emakume eta gizonei lan-eskaintza publikorako sarbidean eta lanbide-karreraren garapenean berdintasunezko baldintza eraginkorrak eskaintzeko helburuarekin (1)
- Bizitza pertsonal, familiar eta laboralaren kontziliazioa, lanbide-sustapenari kalterik egin gabe (2)
- Berdintasunezko-heziketa sustatzea, bai enplegu publikorako sarbidean bai lanbide-karreraren zehar (3)
- Aukeraketa eta balioespen-organoetan emakumezkoen zein gizonezkoen presentzia orekatua bultzatzea (4)
- Sexu-jazarpenaren eta sexuarengatik jazartzearen kontrako babes-neurri eraginkorrak ezartzea (5)

- Sexu arrazoiagatik edozein zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-ordainsari ezabatzeko neurri eraginkorrak ezartzea (6)
- Berdintasun-printzipioaren eraginkortasuna bere jardun-eremuetan aldizka ebaluatzea (7)

#### 5. Taula Barneko berdintasuna

Foru Aldundiak	Udalak eta Erkidegoak	OOAA	Enpresa Publikoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Barneko planik gabe</li> <li>- Kriterio ezberdinak gehitzen dituzte <sup>5</sup></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Barneko planik dute 5ek 2010ean eta 4k 2011n (diseinu fasean 1 2010ean eta 3 2011n)</li> <li>- Berdintasun kriterioen gehitzea ohizkoa da (%20 eta %25en artean lehenengo 4ek, askoz gutxiago hurrengo biek)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Barneko planik gabe (2 lantze-fasean)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2 2010ean, 4 2011n (eta 1 lantzen)</li> <li>- Ez dauzkatenek, kriterioak gehitzen dituzte, ohizkoenak 2, 4 eta 5; bakarrik kasu batean 1, eta bat ere ez 6 eta 7an</li> </ul>

#### 2.1.2. Berdintasunerako unitate administratiboen kopurua handitzea (G2)

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak Autonomia Erkidegoaren Administrazio sail bakoitzean gutxienez unitate administratibo bat izan behar dela ezartzen du, Saila eta berari atxikitutako organismo autonomoak sustatuz, koordinatuz eta elkarlanean arituz, era horretan Legea eta berdintasun plana betez. Azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak organismo autonomo eta gainontzeko erakunde publikoek, bere baitan eraiki beharko dituztela seinalatzen du.

Lege horretan ere, administrazio foralen eta lokalen egituren beharra arautzen da. Gutxienez erakunde, organo edo unitate administratibo bat existitu behar da, nor bere eremuetako emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu, koordinatu eta garatzeko.

Zentzu honetan, egindako azterketak ia Eusko Jaurlaritzako sail guztiek eta foru aldundiek berdintasun-unitateak dauzkatela erakusten du (haietako bi gutxienez Politika Sozialaren sailearen menpe). Udal eta erkidegoetan egitura hauen existentzia ez da hain ohikoa. Ebaluazioan parte hartutako udalen artean %35ak eta %40ak berdintasun unitate bat identifikatu du -azterketaren bi urteetan-, berdintasun planik duen %60aren inguru dakarrena (%50etik hurbil lantzen ari direnak sartzen badira).

#### 6. Taula Berdintasunerako Unitate Administratiboen existentzia

	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak eta Erkidegoak <sup>6</sup>	OOAA
Unitate Administratiboak	- Sail guztiak, 1 ezik (10)	- Denak, Araba eta Bizkaian Giza Politikaren menpe daude	- %35 eta 40% artean (33 eta 32)	2010: 2 2011: 3

- 5 Bizkaiko Aldundiak berdintasun printzipioaren eraginkortasuna aldizka ebaluatu eta edozein genero-motako ordainsari-diskriminazioezabatzeko neurriak jartzen dituen bakarra da.
- 6 Ebaluazioan parte hartu zuten 31 udaletxe eta 2 erkidogoren datuak.

Euskal erakundeetako emakume eta gizonen berdintasun osoa edo partziala bultzatzeko zenbat pertsona lanean ari diren ezagutzea beste datu garrantzitsu bat da.

Ebaluazioan jasotako datuen arabera -minimoen unibertso bat definitzen arituko liratekeenak- **174 pertsona inguru egongo lirateke lanean 2010ean, eta 171 2011n**. Hauetatik, 100 eta 122ren artean gutxienez<sup>7</sup> izaera eskusiboarekin, eta %80k baino gehiagok, jardunaldi osoko lanekin.

Emakumeen berdintasuna indartzeko lanean ari diren euskal administrazioek %80a baino gehiago hartzen dute, gizonen kopurua organismo autonomoetan handiagoa den bitartean. Funtzio hauek garatzen dituen langilegoaren zatikatutako lanaldia ohikoagoa da udaletan eta erkidegoetan, baita ere organismo autonomoetan eta enpresa publikoetan.

Eusko Jaurlaritzan eta foru aldundietan A mailako langilegoa argi eta garbi gehiengo da (honako funtzioetan lan egiten duen %66a hartzen du, esaterako), eta udaletan ohikoagoa da B maila 2011n (honako banakatzean eskainitako postuek %46a hartzen dute).

Eusko Jaurlaritzaren<sup>8</sup> eta aldundien berdintasun sail gehienek langileek 150 ordu baino gehiagoko formakuntza jaso dute. Organismo autonomoen egoera berezia da, ikuspegi orokorra Emakunderen barneratzeak asko aldatzen duelako, azken erakunde honen langileek erabateko dedikazioa eta 150 ordu baino gehiagoko formakuntza daukatelako, erakunde guztien aldean, non langileen %40ak bakarrik formakuntza hau jaso duen (gainontzekoek, 150 ordu baino gutxiago).

---

7 Kasu guztietan ez da zehaztu banakatzea dedikazioagatik.

8 Kasu honetan 2011n sail batek egoera aldatu du, 2010ean langileen %71ak 150 ordu baino gehiagoko heziketa jaso zuen.

7. Taula **Berdintasunerako Unitate Administratiboetan lanean dauden pertsonak<sup>9</sup> (eta informazioa eskaintzen duten erakunde kopurua)**

Urteak	Eusko Jaurlaritzza	Foru Aldundiak	Udalak eta Erkidegoak <sup>10</sup>	OAAA	Enpresa Publikoak
<b>Guztira</b>	<b>14<sup>11</sup> (11)</b>	<b>12 (3)</b>	<b>86 (50)</b>	<b>52 (5)</b>	<b>10 (6)</b>
<b>2010</b>	9 emakume JC 7 A mailan 1 B mailan 1 C mailan heziketa-ordu 10 kontratu finko	9 emakume JC 3 emakume JP 5 A mailan 3 B mailan 3 C mailan 1 beste batzuk 9 > 150 heziketa-ordu 11 kontratu finko 9 erabateko dedikazioa	40 emakume JC 3 gizon JC 41 emakume JP 1 gizon JP 15 A maila 35 B maila 6 C maila 10 D maila 3 beste batzuk 44 > 150 hezkuntza-orduak 39 aldi baterako kontratua 32 kontratu finko Erabateko dedikazioa: 29 JC y 19 JP	24 emakume JC 6 gizon JC 8 emakume JP 14 gizon JP 34 erabateko dedikazio	6 emakume JP 3 gizon JP 1 emakume JC
<b>Guztira</b>	<b>22 (11)</b>	<b>13 (3)</b>	<b>71 (41)</b>	<b>56 (5)</b>	<b>9 (7)</b>
<b>2011</b>	20 emakume, JC 1 gizon JP 1 emakume JP  16 A maila 2 B maila 4 C maila  14 >150 hezkuntza-ordu 20 erabateko dedikazio 20 kontratu finko	8 emakume JC 1 gizon JC 2 emakume JP 2 gizon JP 7 A mailan 3 B mailan 2 C mailan 1 beste batzuk 9 > 150 hezkuntza-orduak 12 kontratu finko 11 erabateko dedikazio	41 emakume JC 4 gizon JC 25 emakume JP 1 gizon JP 16 A mailan 23 B mailan 5 C mailan 3 D mailan 3 beste batzuk 47 > 150 heziketa-orduak 32 kontratu finko 33 kontratu finko Erabateko dedikazio: 30 JC eta 26 JP	24 emakume JC 6 gizon JC 12 emakume JP 14 gizon JP 35 erabateko dedikazio	6 emakume JP 2 gizon JP 1 emakume JC

9 Kasu batzutan datuek ez dute guztizkoa batzen, erakunde guztiek ez dituztelako beren langile guztiak xehatu. Datu horiek eskaini dituztenen banaketaren datuak orientatzeko utzi dira.

10 Ebaluazioan parte hartu zuten 31 udaletxe eta 2 erkidogoren datuak.

11 2010ean sail batzuk xehatutako datuak ez daude osorik, horregatik informazio honek ez du guztizkoa batzen.

Inplementatutako jarraipen-prozesuan berdintasun-unitateek beren berdintasun-politikak garatzeko jasotzen dituzten laguntza eta betetzen dituzten politiken garapenen indartzea ikusteko asmoz, jarduera “tipiko” nagusiak jasotzen ahalegindu da. Eskaintako panoramika erabat kuantitatiboa bada ere, edukirik islatu gabe, ikuspegi bikoitza kokatzen lagundu dezakeen irudia eskaintzen du: gobernantzaren hobekuntza indartuz eta V Planak gizartean jasotzen dituen jarduerak jasoz.

Horrela, 2010ean Eusko Jaurlaritza, sail, udal eta organismo autonomoetan berdintasun-eremuan lan egiten zutenek, eta beraiek lanean ari ziren erakunderako, barne-berdintasunaren aholkularitzaren gainean 320 dokumentu idatzi zituzten -447 2011n-. Dena den, erakunde bakoitzean eta unearen arabera ere bai, jarduera hau eta beste hainbat aldatzen dituzten egoerak eman daitezke: azterketaren bi urteen gogoeta, informazioa eskaini duten erakunde/instituzio kopuruak informazioaren zeharkakoagoa den irakurketa bat erraztu dezake, dokumentu kopuru handiago bat nabarmenduz (barnekoak bereziki, baina kanpokoak ere bai), Eusko Jaurlaritzak eginak eta gobernanzako eremuan jarduera maila handiago bat islatzen dutenak (dedikazio handiago bat eta/edo erabateko dedikazioa) udalen egoeraren aldean (berriz ere, beren kideengatik organismo autonomoek irudi konplexuago bat erakusten dute).

Edozein kasutan, ondoko kontuak ere nabarmendu daitezke:

- Bi urteetan beste erakundeetako ordezkarietzat 100 eta 200 aholkularitza dokumentu egin dira.
- Azken bi urteen 500 baino gehiago barne-laguntza jardunaldi egin dira (600 baino gehiago 2011n), beste erakundeekin egindako laguntza-jardunaldiak gutxiago badira ere, handiak izanik (363 eta 416)
- Azterketaren bi urteetan berdintasuna indartzeko 129 eta 79 lan-talde osatu dira.
- Batez ere udaletan ohikoa izan da langileen berdintasunean zehatzak ez diren sailen arteko, sail barruko edo sailarteko koordinazioan egituren parte-hartzea.
- Bere osotasunean, langileek sailarteko 102 berdintasun zehatzerako koordinazio-egituretan parte hartu dutela esan dute, eta 55 2011n.

Datu guzti hauek, egindako jardueraren osotasuna eta hedapena edo edukia islatzen ez baditu ere, eremu honetan erakundeen barnean eta artean lan egiten dutenen laguntza metodologiko, aholkularitza eta parte-hartzearen ikuspegia ematen du.

8. Taula **Berdintasunaren eremuan lan egiten dutenek egindako jardurera batzuk**

	Eusko Jaurlaritzaren	Foru Aldundiak	Udalak eta Erkidegoak <sup>12</sup>	OAAA
Barne-aholkularitzarako dokumentuak	2010: 198 2011: 360 Batez besteko x urte eta erakundea: 25	2010: 33 2011: 10 Batez besteko x urte eta erakundea: 7,2	2010: 70 2011: 70 (28) Batez besteko x urte eta erakundea: 2,3	<b>Barne-aholkularitzarako dokumentuak</b>
Kanpo-aholkularitzarako dokumentuak	2010: 66 2011: 136 Batez besteko x urte eta erakundea: 9	2010: 6 2011: -- Batez besteko x urte eta erakundea: 2	2010: 26 2011: 41 (17) Batez besteko x urte eta erakundea: 1,4	<b>Kanpo-aholkularitzarako dokumentuak</b>
Barne-laguntza jardunaldiak	2010: 237 2011: 327 Batez besteko x urte eta erakundea: 26	2010: 58 2011: 87 Batez besteko x urte eta erakundea: 24,2	2010: 259 (30) 2011: 196 (25) Batez besteko x urte eta erakundea: 8,3	<b>Barne-laguntza jardunaldiak</b>
Kanpo-laguntza jardunaldiak	2010: 112 2011: 223 Batez besteko x urte eta erakundea: 15	2010: 45 (2) 2011: 32 (2) Batez besteko x urte eta erakundea: 19,2	2010: 167 (31) 2011: 83 (15) Batez besteko x urte eta erakundea: 5,4	<b>Kanpo-laguntza jardunaldiak</b>
Osatutako lantaldeak	2010: 30 2011: 24 Batez besteko x urte eta erakundea: 2,5	2010: 28 2011: 17 (2) Batez besteko x urte eta erakundea: 9	2010: 65 (30) 2011: 29 (12) Batez besteko x urte eta erakundea: 2,2	<b>Osatutako lantaldeak</b>
Sailen arteko berdintasun ez zehatzen egituren koordinazioan parte-hartzea	2010: 3 (1) 2011: 1 (1) Batez besteko x urte eta erakundea: 2	2010: 6 2011: 4 (2) Batez besteko x urte eta erakundea:	2010: 38 (24) 2011: 49 (29) Batez besteko x urte eta erakundea: 1,6	<b>Sailen arteko berdintasun ez zehatzen egituren koordinazioan parte-hartzea</b>
Sailarteko berdintasun ez zehatzen egituren koordinazioan parte-hartzea		2010: 2 (1) 2011: -- Batez besteko x urte eta erakundea: 2	2010: 25 (19) 2011: 11 (7) Media x año e institución: 1,4	<b>Sailarteko berdintasun ez zehatzen egituren koordinazioan parte-hartzea</b>
Sail-barneko berdintasun ez zehatzen egituren koordinazioan parte-hartzea	2010: 1 2011: 1 Batez besteko x urte eta erakundea: 1	2010: 11 2011: -- Batez besteko x urte eta erakundea: 3,7	2010: 56 (16) 2011: 5 (3) Media x año e institución: 3,2	<b>Sail-barneko berdintasun ez zehatzen egituren koordinazioan parte-hartzea</b>
Sailarteko berdintasun ez zehatzen egituren koordinazioan parte-hartzea	2010: 4 (1) 2011: 6 (1) Batez besteko x urte eta erakundea: 5	2010: 11 (3) 2011: 11 (3) Batez besteko x urte eta erakundea: 3,7	2010: 85 (32) 2011: 36 (21) Media x año e institución: 2,3	<b>Sailarteko berdintasun ez zehatzen egituren koordinazioan parte-hartzea</b>

12 Ebaluazioan parte hartu zuten 31 udaletxe eta 2 erkidogoren datuak.

### 2.1.3. Koordinaziorako egituren kopuruaren handitzea (G3)

V Planak azpimarratzen duen bezala, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak, EAEko berdintasun politikentzako Emakumendera atxikitako bi oinarritzko egitura aurrakusten ditu: Sailarteko Batzordea -Administrazio autonomikoa, forala eta lokala- eta Sail Barruko Batzordea -Administrazio autonomikoa-. Dena den, administrazio foral eta lokalean sailarteko organoen koordinazioa bultzatzea beharrezkoa ikusi da, eta baita ere beren tamaina edo ugaritasunagatik horrela eskatzen duten sailartekoen koordinazioa (sailarteko talde teknikoak).

Koordinazio kontuetan ere bai, kezkarria da aipatutako 4/2005 legean emakumeen bortizkeriari aurre egiteko erakundeek jokoera.

Ildo honetan, ondoko taulak egitura hauek azterketaren bi urteetan lortutako garapen-graduaren ikuspegia eskaintzen du. Lehenik eta behin, sailarteko koordinazioaren inguruan aldundi eta udalei galdetu zaie. Udal eta erkidegoen kasuan, kopuruaren handitzea ikusten da (14tik 16ra) eta bileren kopuruarena ere bai.

9.Taula **Koordinazioko egituren erakunde kopurua eta horien karakterizazioa, erakunde-mota eta urtearen arabera**

Sailartekoa		Foru Aldundiak	Udalak eta Erkidegoak	
Sailarteko koordinazio-egitura badago	—	3	14 Maila politikoa: 3 Maila tekniko: 6 Mistoa 4 Bilera kopurua: 49	
Sailarteko koordinazio-egitura badago	—	3 Bilera tekniko kopurua:15 Bilera politiko kopurua: 3	16 Maila politikoa: 4 Maila tekniko: 4 Mistoa: 6 Bilera kopurua: 52	
Sailartekoa	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak eta Erkidegoak <sup>13</sup>	OAAA
Sailarteko koordinazio-egitura 2010	8 33 langile tekniko bilera 9 langile politikoen bilera 14 bien bilera	3 99 langile tekniko bilera	10 56 langile tekniko bilera 54 langile politikoen bilera 24 bien bilera	
Sailarteko koordinazio-egitura 2011	10 48 langile tekniko bilera 3 langile politikoen bilera 13 bien bilera	3 100 langile tekniko bilera	11 43 langile politikoen bilera 33 langile tekniko bilera 59 bien bilera	6 koordinazio orokorraren egitura (2011)
Harremana daukaten gaitan beste koordinazio egitura batzuk		2 2011n	28 2010ean 30 2011n	1 2011n
Genero-indarkeriaren kontrako protokoloa (2011 bakarrik)	2	2	33	1

13 Ebaluazioan parte hartu zuten 31 udaletxe eta 2 erkidogoren datuak.



Sailarte egituren koordinazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako sailetan oso ohikoak dira (2011n bakar batek egitura hau ez daukala dio), aldundietan ere badaude, baina udal eta erkidegoetan askoz gutxiago daude<sup>14</sup>.

Egitura hauen inguruan egindako bilera guztien kopurua 2010eko 289tik 2011n 299ra igotzen da. Nabarmentzekoa da ere bai, Eusko Jaurlaritzak eta aldundietan bilera hauek batez ere teknikoak badira, udaletan hibridoagoak direla, eta ohikoak direla langile politiko edo mistoekin egitea azken hauetan.

Udaletan ere, berdintasunarekin zerikusia daukaten baina beste kontu batzuk lantzen dituzten gaien koordinazio-egitura gehienak aurkitzen ditugu (30 2011n).

#### 2.1.4. Genero ikuspegia daukaten estatistiken eta azterlanen ehunekoak handitzea (G4)

Genero-ikuspegia administrazioko estatistika eta azterketa guztietan sartzea errealitate sozialaren eremu ezberdinetako berdintasun eta ezberdintasun egoeren azterketarekin konbinatu behar da, 4/2005 Legeak materia hontan 16 artikuluan agintzen duena jarraituz.

Zentzu hontan, Eustat-ek aurreko aldiaren bere webean “emakume eta gizonen arteko berdintasun” atal bat sortu zuen, Eusko Estatistika Organizazioak genero-ikuspegitik egindako estatistika interesgarrienak azalduz. Estatistika hauek ondoko esparruak hartzen dituzte: Populazio-eremuak; Lana; Diru-sarrerak, Osasuna; Hezkuntza eta euskara; Kultura, gaztera eta kirola; Giza-barneratzea, Ohitura sozialak; Justizia eta emakumeen kontrako bortizkeria, Hauteskundeak eta Ingurumena.

Euskal Administrazioan 2010ean eta 2011n emandako neurri hauen garapenaren azterketa informazioa jasotzeko zailtasunen menpe egon da. Galdeketa noizbehinka egindako jarduerak eta sistematikoak bereizteko aukera eman bada ere, erakunde askok, udalek batez ere, erakunde “osoaren” informazioa emateko zailtasunak aurkitzen dituzte.

Edonola ere, erakundearen aldetik sexuaren aldagaiaren sartzea nahiko finkatua dagoela dirudi (Eusko Jaurlaritzako sailetan, aldundietan eta organismo autonomoetan batez ere, eta 2011ko datuek udaletan hareagotu direla erakusten dute -28k hala egiten dutela azpimarratzen dute-).

Sexua esplotaziotik banatzea eta informazioa aldagai hau kontuan hartuz interpretatzea ere ohikoa da. Genero-bretxaren identifikazio eta azterketaren edo genero-aldagaien erabilera ordea, batzutan bakarrik erabiltzen da eta ez sistematikoki.

---

14 Gainera, ildo honetan harreman sendoak mantentzen badituzte ere, lau udalek zehaztu gabeko egiturak dauzkatala baieztatzen dute.

10. Taula **Berdintasunaren ikuspegitik egindako estatistika eta azterketak**

	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak eta Erkidegoak <sup>15</sup>	OOAA
Estatistika alorra/alorrek badaude	Ia denetan (9 eta 10)	2	10 y 14	5
Sexuaren aldagaia estatistiketan barneratzen da	Bai, era sistematikoan (9 eta 10 bi urteetan)	Bai, noizbehinka (2)	Bai, 8 noizbehinka 2010ean eta 14 sistematiko eta 14 noizbehinka 2011n	6 sistematiko 2 noizbehinka
Esplotazioa eta interpretazioa banatzen dira	Bai, era sistematikoan (7) eta noizbehinka /2)		13 sistematiko 14 noizbehinka	4 sistematiko 4 noizbehinka
Genero-bretxa aztertzen da	Bai, noizbehinkago	Noizbehinka	4 sistematiko, 9 noizbehinka	2 sistematiko 3 noizbehinka
Genero-aldagaiak	6 noizbehinka 2 beti	2	2 sistematiko, 6 noizbehinka (2011)	2 sistematiko 3 noizbehinka
Banaketa daukaten prentsako oharren kopurua	2010ean: 11 (2) 2011n: 29 /5)	--	2010ean: 68 (14) 2011n: 19 (5)	2010ean: 2 (1) 2011n: 3 (2)

### 2.1.5. Genero ikuspegia txertatua daukaten administrazioen formakuntza-jardueren eta berdintasun gaien formakuntza-jarduera zehatzen kopuruak handitzea, osatutako taldeak dibertsifikatuz (G5)

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak berdintasun alorrean heziketa oinarrizkoaren eta espezifikokoaren garrantzia azpimarratzen du, “iadanik lortutako berdintasunaren ilusioari” aurre egiteko (oinarrizko heziketa); eta langile teknikoek eta erantzun politikoa dutenek beren lana modu eraginkorrean burutzeko tresnak edukitzeko asmoz, emakume eta gizonek politika publikoetan dauzkaten fase eta eremuetako errealitate ezberdinak kontuan hartzea.

Pertsonak trebatzeko bi tresna proposatzen dira: lehena, desberdintasunaren-egoera gaitan formakuntza orokorreko planak sartzea, eta erakundeen esku-hartzearen ondorioak. Bigarrena, berdintasun kontuetan heziketa espezifikorako planak garatzea.

**Euskal administrazioetan berdintasunaren gainean identifikatutako formakuntza-planak**

- 2 foru aldundi
- 9 udal eta erkidego 1
- 2 organismo autonomo
- batzar nagusi 1

15 Ebaluazioan parte hartu zuten 31 udaletxe eta 2 erkidogoren datuak.

Administrazio publikoko langileak jarraitu duen formakuntzari dagokionez, bi informazio-iturri nagusi bereizi dira: IVAP-ek egindako formakuntza -formakuntza bere osotasunean eta berdintasunaren gainean egindako formakuntzen gainean datuak eman ditu- eta administrazioek IVAP-etik kanpo jaso duten formakuntza, berdintasunari dagokionez orokorrak eta espezifikoak izan direnak.

4.Grafikoa **Tematika zehatz bat garatzen duten jardueren kopurua, urtearen arabera**



**Politika soziala** ere esparru nabarmena da berdintasuneko jardueren garapenerako: bi urtetako jardueren %20a eta %25a eremu honetan inskribatzen dira. Horiek, emakumeak gizartean daukan estatus ahulenari ekiteko berdintasun-ekintzetan alderdi partzial bat erakusten dute.

Euskal administrazioek emakume eta gizonen berdintasunerako ahaleginak egiten dituzten lehentasuneko lan-arloak **osasuna eta kontsumoa** dira ere (hamarretik bi ekintzaren inguruan).

**Lan-arloaren** inguruko berdintasunaren aldeko ekintzetan bi urteetan informatutako ekintzen %15a hartzen dute. **“Ekonomia”**deituriko arloetan aldiz (sustapen ekonomikoa, industria, nekazal garapena, merkataritza... hartzen dituen), gutxiagotan egin dira, 150 ekintza urtean. **“Habitat”**-ean berriz (azpiegiturak, hirigintza, etxebizitza, mugikortasuna...) 100 ekintza baino gutxiago egin dira.

**Segurantzaren eta justiziaren** zuzendutako esku-hartzei dagokienez (genero-indarkeria barne-hartzen dutenak -zerbitzu ezberdinen prebentzio eta prestazioarekin ere bai-), 2011n arinki handitu dira, eta aztertutako bi urteetan 10 ekintzetatik 1 garatu dira honako arloetan.

#### 2.2.4. Esku-hartze mota

Ohikoena den esku-hartze motari dagokionez, ekintzek askotan mota bat baino gehiago konbinatzen dituztela ikusten da (2010ean ekintza bakoitzeko batez bestekoa 1,6 zen eta 2011n 1,7 da). Hau da, erakundeen arteko koordinazioa bezalako ekintzak adibidez, sentsibilizazio, hedapen eta komunikazio, edo informazioa eta azterketa, etab. bezalako esku-hartzeekin batera egiten dira.


Hori kontutan hartuz, **sentsibilizazio, hedapen eta komunikazio** arloan kontzentrazio argia ikusten da, 2010ean egindako esku-hartzeen %44arekin eta 2011ko %41arekin. Ekintzen kontzentrazio hau handiagoa da udaletan eta erkidegoetan, non 2010ean guztizkoaren %60ra igotzen den eta 2011n ia %54ra heltzen den.

Azken bi urteetako egoerari begira, berdintasun arloko hurrengo esku-hartze ohizkoenen taldea **informazioa, ezagutza eta azterketari** dagozkien ekintzetan aurkitzen dugu, esku-hartzearen koordinazioa eta unitate, erakunde eta organismo publiko eta pribatuen arteko hitzarmenarekin batera. Azken hauek azpimarratu badira da, ohikoa delako erakunde ezberdinen arteko ekintzetan koordinazioa, sentsibilizazioa edo informazioa nahiz eta koordinazio-maila hau mugatua den (adibidez, mintegien gauzatzean).

28. Taula **Esku-hartze zehatz bat bezala egiten diren ekintza kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera**

ESKU-HARTZE MOTA ETA 2010 URTEA	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak	OOAA	EEPP	Beste batzuk	GUZTIR A
2010							
Esku-hartze ekonomikoa	48	54	143	20	1		266
Esku-hartze legegilea	33	30	26	9			98
Hiritarrenganako formakuntza	19	31	123 +1	11		1	186
Sentsibilizazioa, hedapena eta komunikazioa	80	78	259 +2	59	1	1	480
Informazioa, ezagutza eta azterketa	59	60	99 +1	32		1	252
Zerbitzu eta/edo hornikuntzen sorkuntza eta kudeaketa	20	20	34 +1	5			80
Herritarren parte-hartzea eta kontsulta	15	14	81 +3	22		1	136
Esku-hartzearen koordinazioa eta unitate, erakunde eta organismo publiko eta pribatuen arteko hitzarmena	45	44	161 +2	44	1		297
2011							
Esku-hartze ekonomikoa	56	65	120	27		13	281
Esku-hartze legegilea	43	35	27	18		1	124
Hiritarrenganako formakuntza	11	27	125 +3	12	1	3	182
Profesionalen formakuntza SP	32	14	30	9		1	86
Sentsibilizazioa, hedapena eta komunikazioa	117	80	211 +7	71		10	496
Informazioa, ezagutza eta azterketa	124	62	85 +2	42		8	323
Zerbitzu eta/edo hornikuntzen sorkuntza eta kudeaketa	34	16	31	9		1	91
Herritarren parte-hartzea eta kontsulta	17	15	103 +4	15		2	156
Esku-hartzearen koordinazioa eta unitate, erakunde eta organismo publiko eta pribatuen arteko hitzarmena	90	54	147 +6	44		3	344

5.Grafikoa **Esku-hartze zehatz bat bezala egiten diren ekintza kopurua, urtearen arabera**



**Esku-hartze ekonomikoak**, seguraski, harrigarrienak dira. Hauek **nahiko ohizkoak dira ere bai**, 2010ean 266 ekintza egin ziren eta 2011n 281, hau da, berdintasunarekin erlazionaturako ekintzen garapenerako beste instituzio, erakunde edo pertsoneri (diru-laguntzak, beka...) finantzaketa motaren bat eman diete.

**Esku-hartze legegileetako** ekintzen gehiengoa Eusko Jaurlaritzan -sailatan eta hauen menpe dauden organismo autonomoetan- eta diputazioetan egin dira, 198 esku-hartzerekin 2010ean eta 124ekin 2011n.

Hiritarrei zuzendutako **formakuntza-ekintzei** dagokienez (ikastaro, lantegi, mintegi...), euskal administrazio guztietan ohizkoagoak dira (186 ekintzekin 2010ean eta 182ekin 2011n). Administrazio publikoen menpe dauden zerbitzu publikoen profesionalen zuzendutako formakuntza-ekintzak ordea, ez dira hain ohizkoak, Eusko Jaurlaritzako salbuespenarekin bertan daukaten garrantziagatik (2011n gehitutako galdera).

**Zerbitzu eta horniduren sorkuntza eta kudeaketan** ekintza gutxien egin dira (80 2010ean eta 91 2011n). Bestalde, herritarren parte-hartzea eta kontsulta eskatzen duten esku-hartzeak askotan identifikatu badira ere (136 ekintza 2010ean eta 166 2011n), kontuz interpretatu behar da guztizko kopuru hau, hainbat kasutan parte-hartzea mugatua eta kriterio zabalekin interpretatu dela egiaztatu delako.

Esku-hartze hauen edukien azterketa zehatzago batek, hauekin harremana duten informazio interesgarri batzuk lortzea ahalbidetzen du.

### 2.2.5. Formakuntza

Berdintasunaren arloan herritarrei zuzendutako ekintzek, gutxienez<sup>27</sup>, hogeita hamalau mila euskal herritar heldu dituzte 2010ean, eta ia hogeita lau mila 2011n. Bi urte hauetan emakumeak esku-hartzeen helburu nagusia izan dira, 2010ean hiru parte-hartzaileetatik bi izanik eta lautik hiru 2011ean.

Aurreko urtearen aldean, 2011n erregistratzen den beherapenaz gain (2010eko parte-hartzaileen erdia informatu da), 2010ean foru aldundien ekintzen garrantzia nabarmentzen da arlo honetan, parte-hartzaileen ia erdiarekin, 2011n erregistratzen duten beherapena nabarmena izateaz gain.


29. Taula **Hiritarren formakuntza-ekintzetan parte-hartzaileen kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera**

Parte-hartzaileak, sexua eta urtea	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak <sup>28</sup>	OOAA	EEPP	Beste batzuk	GUZTIRA
<b>2010</b>							
Azaldutako emakumeak	923	10.305	9.326	2.388		70	<b>23.012</b>
Azaldutako gizonak	179	6.042	3.705	1.054		4	<b>10.984</b>
<b>Guztira</b>	<b>1.102</b>	<b>16.347</b>	<b>13.031</b>	<b>3.442</b>		<b>74</b>	<b>33.996</b>
<b>2011</b>							
Azaldutako emakumeak	492	2.748	6.449	1.324	321	950	<b>12.284</b>
Azaldutako gizonak	79	1.114	1.490	959		230	<b>3.872</b>
<b>Guztira</b>	<b>571</b>	<b>3.862</b>	<b>15.713</b>	<b>2.283</b>	<b>321</b>	<b>1180</b>	<b>23.930</b>
<b>Formakuntza administrazioko zerbitzu publikoetan</b>							
<b>2011</b>							
Azaldutako emakumeak	278	525	407	185		41	<b>1.436</b>
Azaldutako gizonak	71	189	196	112		6	<b>574</b>
<b>Guztira</b>	<b>349</b>	<b>714</b>	<b>603</b>	<b>297</b>		<b>47</b>	<b>2.010</b>

27 Datu zehatzik ez dutelako, informatutako ekintza guztiek bertan parte hartu duten pertsonen kopuruaren berri ez dute eman.

28 2011n ikusten da udalek ekintzen parte-hartzaile kopuru bat sexuaren arabera klasifikatu ezin izan dutela, eta ondorioz, gizon eta emakumeen batura eta guztizkoak oso ezberdinak dira.

6.Grafikoa **Herritarren formakuntza-ekintzetan parte-hartzaile kopurua, urtearen arabera**



Administrazio-mota guztiek bultzatu dituzten ekintzetan gizon eta emakumeen parte-hartze jardueretan desberdintasun nabarmenak ikusten dira. Eta horrez gain, “beste erakunde” batzuk sustatutako prestakuntza-jardueren parte-hartzean hazkunde nabarmen bat ikusten da, batez ere, urte horretan informazio bilketan UPV-EHU gehitzen delako.


2011n ere, euskal administrazioei beren administrazioa zuzendutako prestakuntzen esku-hartzearen gainean galdetu zitzaaien. Hauetan bi mila parte-hartzaile baino gehiago identifikatu ziren, emakumeen gehiengo batekin berriro ere (hamarretik zazpi baino gehiago), organismo autonomoek bideratutako jarduera-ekintzetan berriz ezberdintasun txikiago bat jasoz.

2011n formakuntza honen helburuaz galdetu da baita ere, eta nabarmentzekoa da esku-hartzeen %63aren helburua “berdintasunaren gainean ezaguera hobetzea” zutela. Hau da, funtsean formakuntza orokorra zuten formakuntza-jarduerak egin dira, eta ez lan-ingurumenera egokitutakoak. Formakuntza-jarduerak sustatutako erakundeek begiratzen badiegu, helburu hau udale eta erkidegoetan eman da gehien bat. Horrela, lan-testuinguruan berdintasunaren ikasketaren egokitzapenaren aldeko 25 formakuntza-jarduera egin dira eta 19k formakuntza-jarduera hauek jaso dituzten enplegotasuna indartzea bilatzen zuten (modu orokorrean berdintasunaren ezagutza hobetzea bilatzen zuten 114ren aldean).

30. Taula **Helburu zehatzei zuzendutako formakuntza-ekintza kopurua, erakundeen arabera**

FORMAKUNTZA HELBURUAK	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak	OOAA	EPPP	Beste batzuk	GUZTIRA
2011							
Berdintasunaren gaineko ezagutza hobetzea	4	13	84	9	1	3	<b>114</b>
Jarduera profesionaleko aplikazioaren alde egitea	3	3	9	7	1	2	<b>26</b>
Enplegotasunaren edo garapen profesionalaren alde egitea	2	6	9		1	1	<b>19</b>
Ziurtagiri/egiaztatzea zeukan	3	5	16	4	1	1	<b>30</b>

7. Grafikoa **Helburu zehatzei zuzendutako formakuntza-ekintza kopurua**



Herritarrei zuzendutako formakuntza-ekintzen %16ak parte-hartu dutenenei ziurtagiri edo egiaztapenen bat eman diete.

## 2.2.6. Sentsibilizazioa

2010ean eta 2011n egindako ia 500 sentsibilizazio, hedapen eta komunikazio ekintzetan, lehenengo urtean hogeita sei mila herritarrek parte hartu zuten eta bigarrenean, berrogei mila. Hauen helburua 2010ean emakumeak baziren ere (%70,8a), 2011n gizonen kopuruak emakumeena arinki gailentzen du (%51,9a). Bi gertakari hauetan, hots, 2011ko parte-hartzaile guztizkoan eta gizonezkoen parte-hartzearen hazkundeetan, Foru Aldundiek garatutako ekintzen eragina oinarrizkoa da.

31. Taula **Sentsibilizazio, hedapen eta komunikazio jardueretan parte-hartutakoen kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera**

Sexuaren eta urtearen arabera parte-hartzaileak	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak s <sup>29</sup>	OOAA	EEPP	Beste batzuk	GUZTIRA
<b>2010</b>							
<b>Azaldutako emakumeak</b>	1.416	2.694	11.049	3.180		70	<b>18.409</b>
<b>Azaldutako gizonak</b>	1.323	1.214	4.386	767			<b>7.690</b>
<b>Guztira</b>	<b>2.739</b>	<b>3.908</b>	<b>15.435</b>	<b>3.947</b>	<b>0</b>	<b>70</b>	<b>26.099</b>
<b>2011</b>							
<b>Azaldutako emakumeak</b>	3.368	2.484	5.550	3.740		82	<b>15.224</b>
<b>Azaldutako gizonak</b>	2.475	10.112	2.432	1.371		26	<b>16.416</b>
<b>Guztira</b>	<b>5.843</b>	<b>12.596</b>	<b>16.446</b>	<b>5.111</b>	<b>0</b>	<b>108</b>	<b>40.104</b>


Sentsibilizazio-jarduera hauek barneratzen dituzten ekintza-motei dagokienez, ezberdinak direla eta askotan ekintza bat baino gehiago hartzen dutela ikusten da. Nabarmentzekoa da 2010eko jarduera-mota hauen ia %40ak eta 2011ko %37ak komunikabideetan difusio-kanpainak egiten zituztela (telebista, irratia, idatzizko prentsa eta/edo internet), eta bereziki, udaletxeetan. Azkenik, beste tipologiak (jardunaldiak, solasaldiak...) ohizkoak direla ere ikusten da.

29 2011n ikusten da udalek ekintzetan parte-hartu duten kopuru handi bat sexuaren arabera klasifikatu ezin izan dutela, eta ondorioz, gizon eta emakumeen parte-hartzaileen baturen guztizkoak oso ezberdinak dira.g.

32. Taula **Helburu zehatzetara zuzendutako sentsibilizazio-jardueren kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera**

EKINTZA-MOTA ETA URTEA	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak	OOAA	EEPP	Beste batzuk	GUZTIRA
<b>2010</b>							
Jardunaldiak, erakusketak, mahai-inguruak...	22	24	99	22	-	-	<b>167</b>
Materialen sorketa eta banaketa	18	37	121	21	-	-	<b>197</b>
Baliabideen kanpaina zabaltzea	13	31	148	13	1		<b>206</b>
Komunikazio instituzionala/Korporatiboa	24	34	69	32	1		<b>160</b>
Beste ekintza mota bat							
<b>2011</b>							
Jardunaldiak, erakusketak, mahai-inguruak...	27	21	102	31	-	3	<b>184</b>
Materialen sorketa eta banaketa	28	34	98	31	-	4	<b>195</b>
Baliabideen kanpaina zabaltzea	22	21	124	10		8	<b>185</b>
Komunikazio instituzionala/Korporatiboa	25	31	89	23	-	6	<b>93</b>
Beste ekintza mota bat	26	9	17	10	--		<b>62</b>

8. Grafikoa **Helburu zehatzetara zuzendutako sentsibilizazio-jardueren kopurua, urtearen arabera**





### 2.2.7. Informazioa, ezagutza eta azterketa


Informazioa jaso, ezagutza hobetu edo emakume eta gizonekin harremana duten alderdi ezberdinen azterketari dagokienez, ekintza ezberdinak egin dira eta euren edukia ezagutzen saiatu da.

33. Taula **Jarduera zehatzetan ardaztutako informazio, ezagutza eta azterketa ekintzen kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera**

EKINTZA-MOTA ETA URTEA	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak	OOAA	EEPP	Beste batzuk	GUZTIRA
<b>2010</b>							
Datu bilketa edo informazio-bilketa sistemaren aldaketa	17	33	36	7	-	-	<b>93</b>
Diagnostikoa edo ikerlana	17	28	36	14	-	1	<b>96</b>
Proposamenen txostenaren lanketa	17	22	35	8	-	1	<b>83</b>
Barneko jokabide- arauen berrikustea edo aldakuntza	4	7	9		-		<b>20</b>
Ebaluazio-txostenaren lanketa	6	20	50	8	-	-	<b>84</b>
<b>2011</b>							
Datu bilketa edo informazio-bilketa sistemaren aldaketa	20	34	25	7	-	3	<b>89</b>
Diagnostikoa edo ikerlana	41	30	33	19	-	3	<b>126</b>
Proposamenen txostenaren lanketa	16	22	38	11	-	1	<b>88</b>
Barneko jokabide- arauen berrikustea edo aldakuntza	22	11	9	-	-	-	<b>42</b>
Ebaluazio-txostenaren lanketa	9	15	49	11	-	3	<b>87</b>
<b>Guztiak</b>	<b>24</b>	<b>6</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	<b>-</b>	<b>4</b>	<b>44</b>

Ikusten den bezala, jarduerak ekintza baten baino gehiagoren bidez garatzen dira, eta hauen artean, ohizkoenak informazio-jasotzea eta ikerlan baten lanketak dira. Gainera, nabarmentzekoa da jarduera hauetako askok proposamenen lanketak eta ebaluazio-informeak (84 2010ean eta 87 2011n) zeuzkatela. Barneko jokabide-arauen berrikustea edo aldakuntza berriz, ez dira hain ohizkoak, nahiz eta 2011n Eusko Jaurlaritzako sailetan 20tik 42ra hazkuntza bat identifikatu den.

9. Grafikoa **Informazioan, ezagutzan eta azterketan ardaztutako ekintza-zehatzen ehunekoen banaketa, urtearen arabera**




### 2.2.8. Zerbitzu eta hornikuntzen sorketa eta kudeaketa

Euskal administrazioetan gutxiagotan ematen dira zerbitzu eta hornikuntzen sorketa eta kudeaketari dagozkien jarduerak, eta erdia baino gehiagok aurretik dauden zerbitzu eta baliabideekin erlazionatuta daude (informazio zehatza eskaini duten bik hirutik inguru). Azpimarratzekoak dira baita ere, 2011n baliabide berrien sorketa-jarduera gehiago identifikatu direla, 35 hain zuzen ere, eta Eusko Jaurlaritzako sailetan daukaten garrantzia (2011n informatutako baliabideen ia erdia hartzen zuten).

34. Taula **Zerbitzu eta hornikuntzen sorketa eta kudeaketa kopurua, jardueraren, urtearen eta erakundearen arabera**

JARDUERA-MOTA	Sailak EJ	DFFF	Udalak eta Erkidegoak	OOAA	EEPP	Bsete batzuk	GUZTIRA
<b>2010</b>							
Zerbitzuaren, baliabidearen edo hornikuntzaren kudeaketa eta/edo aldaketa	9	13	21	4	-	-	<b>47</b>
Baliabide, zerbitzu edo hornikuntza berri baten sorketa	3	3	17	1	-	-	<b>24</b>
<b>2011</b>							
Zerbitzuaren, baliabidearen edo hornikuntzaren kudeaketa eta/edo aldaketa	18	8	19	6	-	-	<b>51</b>
Baliabide, zerbitzu edo hornikuntza berri baten sorketa	17	3	11	4	-	1	<b>35</b>
Jardueran egindako diagnostikoak ezberdintasunak dauzka emakume eta gizonen beharrei dagokienez 2010	1	4	13	1			<b>19</b>
Jardueran egindako diagnostikoak ezberdintasunak dauzka emakume eta gizonen beharrei dagokienez 2011	15	3	12	4			<b>34</b>

10. Grafikoa **Zerbitzu eta hornikuntzen sorketa eta kudeaketa kopurua, urtearen arabera**



Gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko baliabide eta zerbitzu berrien kudeaketa eta sorketa jardueren inguruan, gizon eta emakumeen artean dauden ezberdintasunak gehitzen dituzten diagnostikoen hazkundera finkatzen doa (19tik 34ra), batez ere azken urtean Eusko Jaurlaritzako sailtan erregistratutako datuei dagokienez.

### 2.2.9. Berdintasun-jardueretan hiritarrek in erlazionatutako beste aldagai batzuen eragina

Emakumeen eta gizonen berdintasunari zuzendutako jarduerak hauei dagokienez ondoko gaiak aztertu dira: talde espezifikoak zuzendu al diren, desberdintasunarekin erlazioa daukaten beste aldagaiak kontutan hartu al diren, aparteko beharrak daukaten taldeekin sentikorrak izan al diren...

Lehenengo galderak honako hau planteatzen du: garatutako jarduerak orokorrean euskal gizartera, emakumeetara, gizonetara edo pertsona transgenero edo transexualei zuzendu al diren.

35. Taula **Gizon, emakume eta pertsona transgenero-transexualei espezifikoak zuzendutako jarduerak kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera**

	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak	OAAA	EPPP	Beste batzuk	GUZTIRA
<b>2010</b>							
<b>Emakumeak</b>	92	55	300	34	1	2	<b>484</b>
<b>Gizonak</b>	55	38	186	23	1	2	<b>305</b>
<b>Pertsona transgenero/transxualak</b>	1	21	45	14	1	1	<b>83</b>
<b>2011</b>							
<b>Emakumeak</b>	71	54	188	53	1	-	<b>367</b>
<b>Gizonak</b>	39	34	79	9	-	-	<b>161</b>
<b>Pertsona transgenero/transxualak</b>	4	13	6	5	-	-	<b>28</b>

Berdintasunarekin erlazionatutako jarduerari dagokienez, emakumeak dira lehentasuneko taldea. 2011n talde espezifikoak zuzendutako jardueren beherapena ematen da kasu guztietan, batez ere gizonen eta pertsona transgenero eta transexualeen kasuetan, 28 jarduerak bakarrik identifikatuz (esparru honetan identifikatutako esku-hartzeen guztizkoaren %2a).

Emakume eta gizonen berdintasuna beste talde batzuetan sendotzera zuzendutako jarduerari dagokienez, hiritar gazteak nabarmentzen dira, 138 jarduerekin 2010ean eta 102ekin 2011n. Hau da, euskal administrazioek egindako jardueren guztizkoaren %10aren helburua gazterien artean berdintasuna sustatzea zen.

Pertsona helduek ere arreta jaso dute 72 jarduerekin 2010ean eta gutxiagorekin, 38ekin, 2011n. Horiekin alderatuz, etorkinen kasua oso antzekoa da (83 jarduerak 2010ean eta 45 2011n). Gutxiengo etnikoak 2010ean definitutako jardueren 39ren helburu dira, eta 26renak 2011n. Bitartean, minusbaliarik duten pertsonen artean, genero-berdintasuna sustatzea helburu duten jarduerak-kopurua 49koa izan da lehenengo urtean, 25era jeitsiz 2011n.

Errenta baxuak dauzkaten pertsonak 2011ko berdintasun-jardueren helburuen kopuru txikiago bat hartu dute: aurreko urtean identifikatutako 45en aldean 19 soilik, pertsona homosexualetan antzeko egoera bat isladatuz (identifikatutako jardueren 34a eta 14a bi urteetan).

36.Taula **Talde espezifikoei ardatzitutako jarduerak kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera**

	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak	OOAA	EEPP	Beste batzuk	GUZTIRA
<b>2010</b>							
<b>Gutxiengo etnikoak</b>	11	8	14	6	-	-	<b>39</b>
<b>Pertsona etorkinak</b>	18	8	37	9	-	1	<b>73</b>
<b>Pertsona minusbaliatuak</b>	8	12	26	2	-	1	<b>49</b>
<b>Pertsona gazteak</b>	15	16	96	10	-	1	<b>138</b>
<b>Pertsona helduak</b>	8	9	47	7	-	1	<b>72</b>
<b>Errenta baxuak dauzkaten pertsonak</b>	9	10	20	5	-	1	<b>45</b>
<b>Pertsona homosexualak</b>	2	9	17	5	-	-	<b>34</b>
<b>2011</b>							
<b>Gutxiengo etnikoak</b>	4	2	11	9	-	-	<b>26</b>
<b>Pertsona etorkinak</b>	4	2	30	9	-	-	<b>45</b>
<b>Pertsona minusbaliatuak</b>	4	6	8	7	-	-	<b>25</b>
<b>Pertsona gazteak</b>	16	9	68	8	-	1	<b>102</b>
<b>Pertsona helduak</b>	2	3	24	9	-	-	<b>38</b>
<b>Errenta baxuak dauzkaten pertsonak</b>	-	3	11	5	-	-	<b>19</b>
<b>Pertsona homosexualak</b>	4	1	5	4	-	-	<b>14</b>

Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko esku-hartzeen inguruan, talde espezifikoei zuzendutako jarduerak aztertzeaz gain, berdintasunera beste aldagai batzuen arabera gerturatu al diren analizatu da.

Aztertutako aldagaien artean, jardueren helburu nagusia adina izan dela dirudi, analizatutako bi urteen guztizkoaren %10a hartuz.

Bigarren lekuan, esku-hartze erdiarekin, desberdintasun sozialak gutxitzera bideratutako jarduerak aurkitzen dira. Etnia edo arrazaren kopurua minusbaliotasunarena baino zertxobait handiagoa da. Eta sexuaren arabera desberdintasunen ezabapena edo gutxitzeari dagokionez, 2010ean 40 esku-hartze izan ditu eta 2011n 23.

37. Taula **Berdintasunerako beste helburu batzuetara zuzendutako jarduerak kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera**

Berdintasunerako beste hainbat helburu 2010	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak	OAAA	EEPP	Beste batzuk	GUZTIRA
<b>Adina</b>	4	10	81	3	-	-	<b>98</b>
<b>Klase soziala</b>	6	9	28	3	-	-	<b>46</b>
<b>Aukera sexuala</b>	2	9	25	3	-	1	<b>40</b>
<b>Minusbalotasuna</b>	2	8	22	2	-	-	<b>34</b>
<b>Etnia eta/edo arraza</b>	10	8	24	4	-	-	<b>46</b>
<b>Nazio-jatorria</b>	4	5	22	2	-	-	<b>33</b>
<b>2011</b>							
<b>Adina</b>	6	1	65	5	-	1	<b>78</b>
<b>Klase soziala</b>	-	1	19	5	-	-	<b>46</b>
<b>Aukera sexuala</b>	8	2	10	3	-	-	<b>23</b>
<b>Minusbalotasuna</b>	2	4	7	10	-	-	<b>23</b>
<b>Etnia eta/edo arraza</b>	4	2	13	17	-	-	<b>36</b>
<b>Nazio-jatorria</b>	2	-	15	10	-	-	<b>27</b>

Azkenik, administrazioek garatutako ekintzek ondoko gaiak ze neurritan kontutan hartu dituzten ezagutu nahi izan da: bitzitza pertsonal, familiar edo laboralaren arteko kontziliazioa, minusbalotasuna duten pertsonen egokitzapena, (gorrak diren pertsonentzako itzulpena, irisgarritasun fisikoa edo komunikatiboa... adibidez), etorkinak diren pertsonen (beste hizkuntza batzuetara itzulpeak eginez...) edo beste talde batzuen egokitzapena.

Gai hauek formakuntza, sentsibilizazio edo zerbitzu-ekintzekin erlacionatuagoak badaude ere.. (arauzaleak eta ekonomikoak direnen aldean), 2011ko esku-hartzeen 157ak kontziliazioa kontutan izan duela ikusten da (menpekotasuna duten haur eta pertsonen arretan, ordutegietan... adibidez), guztizkoaren %13a alegia, 2010eko ekintza-kopurua %27an handituz.

38. Taula **Talde zehatz batzuei egokitutako neurriak gehitzen dituzten jardueren kopurua, urtearen eta erakunde-motaren arabera**

Egoera pertsonal desberdinetarako neurrien egokitzapena 2010	Sailak EJ	DDFF	Udalak eta Erkidegoak	OAAA	EEPP	Beste batzuk	GUZTIRA
<b>Bizitza pertsonal, familiar eta laboralaren arteko kontziliazioko neurriak</b>	3	20	84	5	-	-	<b>124</b>
<b>Minusbalotasuna duten pertsonen egokitzapena</b>	8	22	35	5	-	-	<b>70</b>
<b>Etorkinak diren pertsonen egokitzapena</b>	6	14	18	-	-	-	<b>38</b>
<b>Beste talde batzuei egokitzapena</b>	6	5	15	-	-	-	<b>26</b>
<b>2011</b>							
<b>Bizitza pertsonal, familiar eta laboralaren arteko kontziliazioko neurriak</b>	14	27	97	18	-	1	<b>157</b>
<b>Minusbalotasuna duten pertsonen egokitzapena</b>	6	11	29	10	-	1	<b>57</b>
<b>Etorkinak diren pertsonen egokitzapena</b>	3	6	22	3	-	-	<b>35</b>
<b>Beste talde batzuei egokitzapena</b>	5	1	7	2	-	-	<b>15</b>

Minusbalotasunik duten pertsonen egoerarekiko moldaketa askoz txikiagoa da, eta 2011n eboluzio negatibo bat erregistratzen du (57 jarduera), 2010aren aldean (70 esku-hartzerekin). Etorkinak diren pertsonen egokitzapena ordea, egonkorragoa da txikiagoa bada ere. Eta azkenik, beste talde batzuen egokitzapena askoz txikiagoa da.

### 2.2.10. Esku-hartzeen kostua

Gobernantzaren esparruan berdintasunaren alorra lantzen duten instituzio edo erakunde ezberdinetako sail edo arduradunek ondokoak azpimarratu dituzte: esleitutako eta exekutututako aurrekontuen zenbatekoa eta honen inguruan informazio zehatza eta osoa eskaintzeko zailtasuna.

Egoera hau esku-hartzeen kasuan areagotzen da: ohizkoa da esku-hartzearen kostu zehatza ez ezagutzea, eta horregatik informaziorik ez gehitzea; beste batzuetan, berdintasuna sustatzeko ekintzari kostuaren ze zati esleitzea posible izango zen identifikatzeko informaziorik ez dago (esku-hartzeak beste helburu batzuk dituzte eta kostuak banatu gabe aurkitzen direnean); eta azkenik, esku-hartze batzuetan berdintasunerako sustapenaren ikuspegiak interpretazio ezberdinak izan ditzake<sup>30</sup>. Edozein kasutan, jasotako informazioa aurrera pauso garrantzitsu bat da, indartzen eta garbitzen joan behar bada ere, lehen-mailako interesa duena.

Guztizko kopuruei, Hezkuntzako partida garrantzitsuenak gehitzen badira (jantokiak, garraioa, bekak...), 2010ean 125 milio euro baino gehiago hartzen dituzte eta 2011n 144 milio baino gehiago. Aurrekontuetan aurreikusita ez zeuden partida hauek ateratzen badira, guztizko gastua handiagoa da 2010ean -27 milio euroekin- eta zertxobait baxuagoa 2011n -21 milio euroekin-, gobernantza arloan identifikatu diren aurrekontu esleitu eta exekutatuetik nahiko hurbil aurkitzen direnak.

39. Taula Informatutako jardueren kostua, urtearen eta erakunde-motaren arabera


Instituzioa/Erakundea	Informatutako jardueren guztizko kostua	
	2010	2011
<b>Eusko Jaurlaritz (Sailak)</b>	<b>108.713.077</b>	<b>129.667.473</b>
<b>(Hezkuntza: garraioa, jangela, haurreskolak... -3 ekintza 2010ean eta 4 2011n)</b>	<b>(98.508.217)</b>	<b>(122.699.938)</b>
<b>Foru Aldundiak<sup>31</sup></b>	3.107.553 +5.973.765	8.173.419
<b>Udalak (+ Erkidegoak)</b>	4.727.589 +45.000	2.877.858 + 61.573
<b>Organismo Autonomoak</b>	2.854.352	3.175.312
<b>Enpresa Publikoak...</b>	90.000	60.000
<b>Beste batzuk (BBNN)</b>	--	111.638
<b>GUZTIZKOA Hezkuntza Saileko neurriekin</b>	<b>125.511.336</b>	<b>144.015.635</b>
<b>GUZTIZKOA Hezkuntza Saileko neurririk gabe</b>	<b>27.003.119</b>	<b>21.427.335</b>

30 Gizartera oro har zuzendutako jardueren kasuen bezala, non erabiltzaile nagusiak emakumeak diren (osasun zerbitzu batzuk, pertsona zaintzaileen ardura...).


31 Lehen nabarmendu den bezala, kasu batzuetan ekintzen guztizko kostua identifikatzea ezinezkoa da. Horrela 2010ean emakumeen esku-hartzea lehenetsi duten sustapen ekonomiko-ekintzetan Bizkaiko Foru Aldundiak 1.330.200 € identifikatu ditu (baina ez zegoen lehenetsun honen eraginari buruzko daturik), 6 milio euro esleitu ziren ere korrespondentsalitate eta kontziliazio sailera atxikitzen zitzaizen familiarren arnas-hartze programarako (emakumeak direlako nagusiki zaintzaileak). Partida potentzial guzti hauek kontutan hartuz, aldundiak identifikatutako kostua 13 milioi euro baino gehiagokoa da (hau da, 16 milioi hiru aldundietan).



11. Grafikoa Informatutako jardueren guztizko kostua, erakundearen eta urtearen arabera (2010-2011)



12. Grafikoa Hezkuntzako partida nagusiak baztertuz jardueren kostuaren banaketa, urtearen eta erakunde-motaren arabera



### 3. ONDORIO GISA

V. Planaren testuinguruan euskal erakundeei egindako jarraipenaren emaitzek, berdintasun politiken eboluzioan eta euskal gizartean izandako eraginean argiak eta itzalak isladatzen ditu.

Erakundeei egindako galdeketetan jasotako informazioarekin batera, nagusiki deskribatzailea dena, euskal administrazio ezberdinek berdintasun teknikak erabiliz egin dituzten balorazioak gehitzen dira<sup>32</sup>. Hauek, jasotako emaitzak kokatzen eta interpretatzen laguntzen dute, V Planaren ezarpeneko puntu kritikoak eta lorpenak identifikatzen lagunduz.

#### **I.-Erakundeen parte-hartzearen hazkundera ebaluaketa-prozesuan**

EAEn berdintasun alorrean lan egiten duten erakunde eta agenteen parte-hartze handiagoa ebaluaketa-prozesuko osagai positibo bat da. Hala ere, 2011n parte-hartu duten 126 erakundeek ez dute egoeraren argazki zehatza lortzea bermatzen, batez ere erakunde lokalek informazioa eskatutako epeetan ematea lortzeko zailtasunagatik.

#### **II.- Planak programazio-tresna erabilgarri eta hedatuak bezala, baina hobekuntzaren beharrekin**

Udal administrazioak (batez ere dimentsio ertain eta txikikoek), organismo autonomoak eta enpresa publikoak... berdintasun planak egiteko hobekuntza gradu-potentziala daukaten instituzio/erakunde bakarrak dira. Gainontzeko antolaketetan, bere ezarpena erabatekoa da.

Tamaina txikiagoko udal guztietan plan hauen garapena ez da bideragarri edo interesgarritzat hartzen, planifikazio zehatzik ez duten berdintasunaren sustapenerako jarduerak egin ahal izanez.

Nolanahi ere, erakundeek berdintasun plan bat izatea positiboki balioesten dute. Gehien baloratzen diren alderdien artean honakoak daude:

- Emakume eta gizonen arteko sustapena ikustaraztea ahalbidetzen du.
- Erakundeetako lanaren garapenerako tresna tekniko bat eskaintzen du, normalean diagnostiko eta parte-hartzen duten sail ezberdinen bateratze-lanetik abiatzen dena.

---

32 Hogeita hamar berdintasun-teknika Ebaluaketa Taldeetan parte hartu duten Udal, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzan.

Plan hauen garapenean hobetu beharreko alderdiak ere ikusten dira, ondokoak bereziki:

- Udal-errealitatei hurbilagoak egiteko beharra (erakundeetan orokorrean), planak egin ahal izango lituzkeen “hori guztia” kontutan hartu beharrean, ekintza bideragarrienak eta beharrezkoenak lehenetsiz.
- Tresna zurruna bezala planen erabilera sahiestea: planek ibilbide-orri bat izan behar dute, baina denboran aurrera egin ahala interesik daukaten beste alderdi batzuk gehitzeko irekita egon behar dira, nahiz eta hasiera batean aurreikusita ez egon.

### **III.- Gobernantzako garrantziko hainbat aldagaien eboluzio orokor positiboagoa bat**

V Planaren jarraipenak ere, euskal administrazioetan berdintasuna sustatzeko egindako hainbat jardueren eboluzioa ezagutzea ahalbidetu du. Administrazio publikoak gai hauen gainean daukaten kezka handiagoa<sup>33</sup> dela ikusi da: sexuen aldagaia estadistiketan gehitzean, generoak izandako eraginaren gainean egindako txostenetan,

Hala ere, dimentsio handia duten erakundeetan ere, legezko eskaera formalak betetzeko joera ikusten da, neurri hauen eragina ezagutu eta balioesteko zailtasun handia daukatela esaten duten arren. Horrela, kontratazio, diru-laguntzen... esleipenerako berdintasun irizpideak erabiltzeko orduan, kriterio hauek betetzen dituzten erakundeen aldeko kontratazioa edo esleipenaren aldeko neurri hauen hedapen erreala ezagutzea zaila da.

Euskal administrazioek egindako genero-arauen inpaktua ebaluatzeko eskaerari dagokionez (ebaluazio txostenek egindako aldaketak ezagutzeko zailtasuna mantentzen den arren), barneko izaera duten ondorioak -berdintasun alorrak beste erakunde batzuetara hurbiltzea-eta beren izaera hezitzailea erakunde eta gizartearentzat oso positiboki balioetsi dira.

### **IV. Baliabideak gutxitzen diren unean, finkatze faseko langilegoa**

Ebaluazioan azpimarratutako beste alderdi bat berdintasunaren sustapena lantzen duten erakundeen langilegoa da. Identifikatutako pertsonen kopurua 174koa da (122k izaera eskusiboarekin). Hala ere, zenbaki zehatzetik haratago, langilegoaren egonkortasunarekin eta alor honetan krisiaren eraginekin erlazionatutako hainbat puntu kritiko ikusten dira.

---

33 Egoera berriro ere aldakorra da, eta “dimentsio” faktorea funtsezkoa.

Horrela, ebaluazioko berdintasunerako teknikak ondokoak adierazi dituzte: batetik, batzuk oraindik beren erakundeetako funtzioetan egonkortze prozesuan aurkitzen direla; eta bestetik, baliabide gutxiago dituzten udaletan bereziki, beren ekintza-alorrak handiagotu beharko dituztela (berdintasunerako funtzioak beste batzuekin partekatuz, gizarte ongizate, gazteria, etabarrekin esaterako) edo krisiaren eraginez beren lanaldiak gutxiagotu, berdintasunaren sustapenaren lanketa eraginez.

## **V. Berdintasuneko administrazioetan pertsonalaren formakuntza, nagusiki emakumeak parte-hartzen duten eremua**

Jarraipenean jasotako informazioak IVAP-ek bultzatutako berdintasunerako formakuntza espezifikoen jardueretan 300 pertsona identifikatzea ahalbidetu du eta 1.100 beste informazio motaren batean 2011n. Parte-hartzaile hauen %70a emakumeak dira.

Datu hauek gainera, IVAP-eko ekintzetan parte hartutako euskal administrazioen guztizkotik %3ak gutxienez berdintasunerako formakuntzan egin duela erakusten dute.

Formakuntza-mota honetan emakumeen nagusitasunak berdintasuna emakumeei interesatzen diela erakusten du, nahiz eta egoera honi dagokionez ikuspegi zabalago bat izateko, hurrengo urteetan gizonen parte-hartzearen eboluzioaren informazioa jaso beharko den.

## **VI. Berdintasunari esleitutako aurrekontuak identifikatzeko zailtasuna**

Egindako jarraipenean, erakundeen %34ak bakarrik berdintasunera esleitutako aurrekontuak identifikatu dituzte, batez ere udaletxeei dagokienez.

Zein ekintza garatu behar diren berdintasunerako aurrekontuekin, eta zein ekintza sailen edo erakundeen ohiko funtzionamendu esparrutik ulertu behar diren gainean nahasketa dago.

Nolanahi ere, berdintasunaren sustapenaren arloan identifikatutako jardueren guztizko kostua 21 milioi ingurutara igotzen da<sup>34</sup>, 2011n Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorren %2a inguru hartzen duena (kopuru hauek gutxi beherakoak dira, erakunde guztiek gai honi buruzko informazio osoa eman ez dutelako).

---

34 Datu hori 144 milioietara handituko litzateke Hezkuntza Saila, Haurreskolak, garraioa eta jangelak... gehitzen badira, zeintzuk emakumeen korresponsabilitatearen eta lan-merkatutako sarbidearen testuinguruan kokatzen badira ere, emakume eta gizonak eragiten dituen hedapena daukan eta modu orokorrean gehituko balitz, berdintasunari zuzendutako aurrekontuak itxuraldatuko litzuzke.

## **VII. Oraindik sentsibilizazioara eta informazioa oso zuzenduak dauden ekintzak: gaitan aurrera egiteko beharra transformatzeko gaitasun handiago batekin**

Emaitzek erakusten dute hiritarrei zuzendutako ia ekintzen erdiak berdintasunaren sentsibilizazioa, hedapena eta komunikazioa bilatzen dutela. Gainera, informazio, ezagutza eta azterketak esku-hartzearen zati handi bat hartzen dute.

Horrela bada, berdintasunarekin harremanik duten ekintza-formatiboren bat jaso zuten 24.000 emakume eta gizonak, eta sentsibilizazio-ekintzetan gutxienez 40.000 pertsonak parte hartu zuten.

Ebaluazioan parte-hartutako ebaluaketa-teknikek adierazi dutenez, garatutako ekintzen hedapen nahiko altu honek, positibotzat jo daitekeena, gizartean eragin handiagoa izan dezaketen beste jarduera batzuk bultzatzeko beharra ez du ekiditen.

## **VIII. Berdintasuna agenda politiko eta sozialean kokatzeko beharra, bere garapenari laguntzeko faktore garrantzitsuena bezala**

Badago ebaluazio-prozesuan parte hartu dutenek behin eta berriz agerira atera duten kontu bat: emakume eta gizonen berdintasuna gai garrantzitsu eta gaur-gaurkoa bezala kokatzeko (edo berriz kokatzeko) beharra.

Gizartean zein erakundeetan ezberdintasun nabarmenekin bada ere ondokoa ikusten da: desadostasun egoera garrantzitsuenak iadanik gainditu izanaren nolabaiteko sentimendua, eta hortaz, berdintasunaren aldeko ekintzak oso beharrezkoak ez direla eta egungo atzerapen ekonomikoaren unean seguruenik oso garrantzitsuak ez direla.

Hala ere, gizartearen errentari-banaketa, denboraren erabilerari (aisialdia, lana, adingabekoen eta menpekoen zainketa...), lan-merkatuaren segmentazioari, etab.-eko eboluzio-kopuruei erreparatuz, hautemate hau sostengatzen ez dutela dirudi.

Krisiak ziur aski emakumeek jasaten duten desabantaila egoera hau nabarmenduko duenez (gai honen inguruko azkeneko azterketek hori ondorioztatzen dute), goiko mailetatik erakunde guztietara berdintasun politiken indartze handiago bat eskatzea egokia dela ikusten da, arlo honetan lan egiten duten pertsona gehienek eskaera izanik.